

# Osasun- protokoloa

**INFEKZIO-PROZESUAK ETA  
ESKOLA-BAZTERKETARAKO  
GOMENDIOAK**

Jarraian aurkituko duzuen protokoloa Osakidetzako profesionalekin partekatua da, zehazki, Pediatria Sailarekin. Halere, azpimarratu nahiko genuke ondorengo lerroetan jasotzen diren gomendioak idatzizko protokoloetan zehaztutako pautak orokorrak direla; hortaz, haurra gaixorik denean, norbere pediateraren gomendioa lehenetsi beharko da, hark behatuko baitu gaixo dagoena.

# Infekzio-prozesuak eta eskola-bazterketarako gomendioak

Gaixotasun infekziosoak ohikoak eta saihestezinak dira haurtzaro osoan, sistema immunologikoaren heldutasun ezagatik eta haurrek lehen kontaktua izaten dutelako germenekin.

Infekzio gehienak prozesu arinak izaten dira, eta egun gutxiren buruan garbitzen dira. Halere, garrantzitsua da ulertzea askotan zaila dela kutsadura kontrolatzea, arrazoi hauengatik:

- Sintomak agertu baino lehen transmititzen dira (inkubazio-aldia).
- Haurrek etengabe jarduten dute elkarrekin (jolasten, jostailuak partekatzen, edalontziak, ipuinak...).
- Haurrek kontrolatzen zailak diren jariakinak dituzte (mukiak, listua, bekarrak, pixoihalak...).

Kutsatzeko hainbat modu dago, kutsaduraren izaeraren arabera. Oro har, lau motakoak dira:

- 01 **Kaka eta ahoa:** mikrobioak kakaren bidez kanporatzen dira, eta kutsatu egiten dira ahoa ukitzean.
- 02 **Arnas sistema (tantak):** ezgul egitean, doministiku egitean, hitz egitean, garrasi egitean, negar egitean...
- 03 **Azala ukitzean.**
- 04 **Likido organikoak ukitzean:** listua, bekarrak, gernua, odola.

## NOLA AGERTZEN DIRA INFEKZIOAK?

Infekzioen ohiko faktorea **sukarra** da.

Sukarra gorputzaren erreakzio arrunta da, **normalean infekzio biral batek edo bakterio batek eragindakoa**. Gaixotasunaren adierazle bat da, eta gure aliatutzat hartu behar dugu infekzioari aurre egiteko.

Ondesteko tenperatura da tenperatura zentralarekin hobekien erlazionatzen dena, baina, aldi berean, zailena da baldintza egokietan hartzeko.

Oro har, **sukarra da besapeko tenperatura 38 °C edo gehiago denean**.

Bide horretan, **ez da gomendatzen** tenperatura belarriko zuloan edota bekokian –termometro infragorriaren bidez– hartzea.

Infekzio-motaren arabera, haurrak beste sintomatologia bat izango du: ezgula, mukiak, goragalea, beherakoa, exantemak edo azaleko lesioak, etab.

## ESKOLA-BAZTERKETA GOMENDIOAK INFEKZIO MOTAREN ARABERA.

Gomendio horiek kontuan hartu ostean, jarraibide orokor batzuk eman nahi ditugu Ikastolan kutsatzea mugatzeko. Halere, ondorengo lerroetan jasotako pautek **ez dute ordezkatzeko** osasun arloko profesionalak kasu zehatzetan emandako informazioa.

---

**SUKARRA**

Gomendatzen da etxean egotea azken sukar-aldia eduki eta 24-48 ordura arte.

---

**GASTROENTERITIS AKUTUA**

Gomendatzen da etxean egotea azken beheakoa edota oka egin eta 48 ordura arte.

---

**GOIKO ARNASBIDEETAKO INFEKZIOA**

Ez da beharrezkoa eskola-bazterketa otalgia, arnasteko zailtasuna edota antzeko sintomarik izan ezean. **Konjuntibitis** kasuetan, gomendatzen da 24 orduko tratamendua betetzea ikastolara etorri aurretik.

---

**GRIPEA**

Haurra etxean egon behar da sintomak desagertu arte.

---

**BARIZELA**

Haurra etxean egon behar da lesio guztiak zarakar-fasean egon arte.

---

**LARRUAZALEKO GAIXOTASUNAK**

Megaloeritema, bat-bateko exantema, aho-esku-hanka gaixotasuna, ahoko aftak

Oro har, hurrek **EZ** dute eskolatik kanpo geratu beharrik, baina kontuan izan lehentasuna dela haurren ongizatea zaintzea. Sukarra, ondoeza, jateko gogo eza... izanez gero, etxean atseden hartzea gomendatzen da.

---

**LARRUAZALEKO GAIXOTASUNAK**

Inpetigoa: azaleko bakterio-infekzioa

Eskolatzea saihestu behar da antibioterapia hasi eta 24-48 ordura arte.

---

**GARATXOAK / MOLUSCUM KUTSAKORRA**

Haurrak ez du zertan ikastolara etorri gabe egon, baina ezingo ditu partekatu esku-trapuak eta bestelako tresnak.

---

**ZORRIAK**

Haurrak infestazioa gertatzen den egunean bertan jaso behar du tratamendua. Hala eginez gero, hurrengo egunean ikastolara etor daiteke.

---

**SARNA**

Etxean egon behar da tratamendua amaitu arte.

---

**TIÑAK**

Haurra ikastolara etor daiteke.

---